

goiberri

Gehigarria

2023ko urriaren 6a
www.goiberri.eus

» MODA ETA EDERGINTZA 2023





N E S S
BY ESTI GARCÍA

GARAGARTZA 5
ORDIZIA
943161025



trajeak, jertxeak, txalekoak... UDAZKENA ♥



DENDAK



EDERGINTZA



ELIKADURA



ENPRESAK / ZERBITZUAK



ERAKUNDEAK



ETXEGINTZA



MOTORRA



OSASUNA



OSTALARITZA / TABERNAK

Goierriko merkataritza eta zerbitzuen
gidarik osatuenean azaltzeko, ez izan zalantzarik

Jarri gurekin harremanetan
Jon: ☎ 607 530 424
jizagirre@hitza.eus

Aurkibidea

4-5. Enakumezko moda.

Atalez atal, eroso eta dotore.

6-7. Berokiak.

Goxo-goxo, bero-bero, koloretsu.

8. Gizonezkoen moda.

Karratuak lagun.

10-11. Koloreak.

Kolorez jantzi.

12-13. Oinetakoak.

Oinetakoen garrantzia.

14-15. Osagarriak.

Osagarriekin azken ukitua.

16-17. Edergintza.


Aurpegiko udazkeneko tratamenduak.

18. Edergintza.

Ile luzetik laburragara.

eiRe
ileapaindegia

943 54 08 45
Santa Magdalena, 2 - behea
LAZKAO



Atalez atal, eroso eta dotore

Prakak, zabalak

Modatik harago, gustura sentiaraziko gaituzten prakak aurkitzea ez da erraza izaten askotan. Bakoitzaren gorputzaren formaren arabera, egokiagoa izango da praka bat ala bestea. Hala ere, aurtengo udazken-neguko modaren joera udakoaren jarraipena izango da. **Praka zabalak** ikus daitezke. Txandalarakoak ere bai. **Larru imitazioak** ere garrantzia hartuko du aurtengo modako diseinuetan, eta praktetan ere bai. Metal kolorekoen aukera ere badago.

Pieza bakarreko (monoak) edo **bi piezako** konjuntioak (kolore edo estanpatu berdina) oso modan daude. Erabilterrazak dira, eta joko handia ematen dute. Lisoak, zein estanpatzio desberdinetakoak. Neurri desberdineko **laukidunak** ere modan daude. **Praka motzak** udakoak direla uste bada ere, udazken-neguan ere tokia izango dute.



Laskurain



Pepejeans

Gonak eta soinekoak, motzenetik luzeenera

Gonak eta soinekoak **adin guztietarako** direla garbi geratu da udaberri-uda honetan. Goierriko kaleak ere horren lekuko dira eta adin guztietako emakumezkoek bere egin dituzte. Udazken-neguan ere gonetan eta soinekoetan aukera zabala izango da; **motzenetik luzeenera artekoak, estuak eta la-saiak, batzuetan gerria markatuta, eta besteetan zabalagoak**. Bakoitzaren estilora edo gustuetara egokitzeko aukera handia dago: lisoak, estanpatuak, animal print, plisatuak, bakoak, laukidunak, harizkoak, zabalak, estuak... Ausartentzat, **zilar kolorekoa** da modako joera berria, kolore metalizatuak modan jartzen ari baitira pixkanaka.

laskurain
Arropa Denda

Legazpi kalea, 6 • Zumarraga
943 72 11 05

Nafarroa etorb, 25 • Beasain
943 25 37 57

TRES SESENTA ILEAPAINDEGIA / AINHOA QUIRÓS

Kale Nagusia, 18
BEASAIN

T 623 165 787

@36q.ainhoaquiros





Stradivarius

Txalekoak, ezinbestekoa

Udari jarraipena emanez, txalekoak ere ezinbestekoak izango dira hotzak iritsitakoan ere. **Lookari ukitu berezia** emateko osagarria erabilerraza da txalekoa. Puntuzkoak izango dira erabilienak, berotasuna emango baitu neguan: luzeagoak zein motzagoak, zabalagoak edo estuagoak, itxiak (pikodunak) zein irekiak. Eta nola ez, sastre deituri-koak ere bai.

Jertseei dagokionean ere, **puntuzkoak**, irekiak zein itxiak; luzeak zein motza, lepo altukoak edo pikodunak. Prakekin zein gona eta soineko motzekin eta luzeekin konbinatuta.

Beltza, beixa, terrakota koloreen ondoan, **jertse grisa** izango da udazken-neguko izarra; gainerako jantzien kolore biziekin ondo baino hobeto konbinatuko dena. Kolore bakarrekoak zein kolore desberdinez eta marrazkiz osatutakoak ere aukeran izango dira. Brilluak eta kolore metalizatuak atsegin dituztenak zorteko daude.

Kolore desberdinetako konbinatutako **arrastodun** jertseak oraindik ere, moda-modan daude.



Twinset

Alkandorak eta blusak

Alkandorak eta blusak indarrez itzuli dira. **Kolore, estilo eta forma desberdinetakoak**. Akabera erromantikoak, kolore bakarrekoak (pastelak), estanpatu geometrikoak, neurri desberdinetako laukiak, animal print-dunak, bordatuak, bakeroak, bolanteduekin, transparentziak dituztenak... aukera zabala da benetan. Bitxiz apaindutakoak ere gero eta gehiago ikusiko dira.

Lazoak edo **korapiloak** modako daude. Blusen kasuan, lepoaldeko korapilo handia.

Inoiz hutsik egiten ez duena, **alkandora zuria** da. Ar-mairuan eduki beharreko jantzi horietako bat da.

Joko handia ematen dute alkandorek eta blusek, txalekoekin edo jertseekin konbinatuta, edo bakarrik erabili baitatezke. Lenzeroak bistan eramaten jarraituko da. Pixkanaka sorbaldatakoak sartzen ari dira, sorbaldetan.




jos-bel

ile-apaindegia

**Kolorea aldatzeko
garai egokia**

 **secretos™
del agua** **INSIGHT**

Urdaneta, 15 • Tel. 943 88 82 52
ORDIZIA



Goxo-goxo, bero-bero, koloretsu

Hitzak ondo baino hobeto adierazten duen bezala, hotzari aurre egiteko jantzia da berokia. Udazken-neguan, behar-beharrezko jantzia. Erosotasunaz eta berotasunaz gain, dotorezia eta estiloa emango duen jantzia. Denboran iraungo duen txamarra edo beroki on bat erostea da aukeretako bat. Bestea, urtez urteko moda joerari jarraitzea. Aurtengo joeretako bat, kolore biziko berokiak dira. Betiko gabardina (eguneratua) ere bai.



Zara

Udazken-neguko jantzi protagonistetako bat, berokia izaten da. Ondo aukeratuz gero, berotasunean eta erosotasunean irabaztearekin batera, estiloan eta dotoretasunean ere nabarmenduko da. Inoiz ere modaz pasatzen ez diren txamarrak, modan dauden koloredun osagarriekin eguneratu daitezke. Akoltxatuak ere aukera izaten ona jarraituko du. Urtez urteko moda jarraitzen dutenek berriz, badute non aukeratua.

1 Kolore bizikoak. Beixa, marroia, kamela, grisa, beltza... oinarritzko koloreak izaten dira konbinagarrienak eta moldakorrenak. Inoiz ez dute hutsik egiten. Hala ere, gorria, arrosa, urdina, horia, berdea, morea... Aukerak amaigabeak dira aurtengo udazken-neguan, bai gizonezkoetan eta bai emakumezkoetan. Kolore bizia aukeratuz gero, eta berokiak protagonismo handiena izatea nahi bada, gainerako jantzietan *black look* (goitik behera beltza) edo estilismo sinple baten aldeko apustua egitea (adibidez, galtza bakeroz eta kamiseta zuriz osatutakoa) da egokiena. Bestalde, estanpatudunetan, batez ere animal print eta koadrodunak (tartan). Kolore eta estanpatu berdineko txamarra eta gona edo prakak konbinatzea oso modako dago.

2 Zabalak eta oso luzeak. *Oversized* estiloa gailenduko udazken-neguan; luzeak eta zabalak izango dira joera nagusiak. Gerria markatuta erabiltzea ere beste aukera bat da. Estilo gotikoa ere indarra hartzen ari da. Haurretan, laburragoak daude bogan, mugimendua eragotziko ez dietenak.

3 Gabardina, txalekoak, bonberrak. Euria egiten duen garairako, urte guztian eskura izateko jantzia da gabardina. Betiko gabardina beixa, baina garai eta forma berrietara egokitutakoa. Luzeagoak eta motzagoak. Hotz handirik egiten ez duen garairako, txamarra-txalekoa janztea alternatiba eraginkorra izaten da. Eta amerikanak eta bonberrak ere bai, jakina.

4 Larruzkoak eta ilezkoak. Larruzko edo larru imitaziozko jantzien indarra nabaritutako txamarretan ere. Luzeagoak eta motzagoak kasu honetan ere. Ilezko edo borrego txamarra ere aukera ona izango da, beroak, funtzionalak, konbina errazak eta estilodunak direlako.



Pexel



Zara

BERRIKUNTZA

Ezagutu nahi al duzu zure ileak zein informazio ematen duen barrutik?

Ilearen diagnostikoa eta aurrediagnostikoa egiten dugu konpromezurik gabe



EVOLUTION & SCIENCES
COSMÉTIQUES
PARIS



x i o r
i l e a p a i n d e g i a

Nafarroa Etorbidea, 53
BEASAIN
T 943 88 23 40

Analisi kapilarrak

Era guztietako tratamenduak

Aholkularitza pertsonala

'Look' aldaketak

Lan teknikoak
(koloreak, balayage, baby lights, moldeatuak...)

Mozketak

Protesi kapilarrak (ile ordekoak...)



La Redoute



Porfirio Fernandez



Ezkena

Laukiak lagun

Gizonezkoen modan jauera berriak mantsago sartzen direla esan daiteke. Aurtengo berritasunetako bat, koadrodun txamarra arin labur kremalledaduna da. Kiroletako arropak indarra izaten jarraituko du.

1 Prakak. Kargo prakak, militar erakoak eta poltsiko handidunak oso modako daude. Ez dira jantzi formalenak, baina blazerrak eta bota edo oinetako dotoreagoak jantzita, itxura sofistikatuagoa lortzen da. Era berean, modu informala-goan joan nahi duenak, *oversized* kamisetarekin look informala-go lortuko da. Hala ere, Goierriko dendetan egindako errepasoak adierazten duenez, kolore iluneko praka bakeroak edo kolore neutroko betiko prakak dira ikusienak. Kirol edo txandal erako prakak ere modako jarraitzen dute.

2 Laukidun alkandorak. Modaz pasatzen ez den piezetako bat da koadrodun alkandora, baina aurtengoa indar handiagoarekin etorri da. Jantzi formal eta informalekin konbinatu daiteke. Estilo eta kolore askotakoak karratuak daude. Laukidun txamarra arin motza, poltsiko handiduna eta kremallera-duna da aurtengo berritasun nagusietako bat. Alkandorak txaketa moduan, kamisetaren gainetik erabiltzea ere modako izaten jarraituko du oraindik ere. Alkandora txuria, armairuan beti eduki beharreko jantzietako bat da.

3 Kamisetak. Marradun kamisetak eta marrazki edo hizki handidun kamisetak; bizkarraldean marrazki handiekin ere bai. Euskal diseinatzaileek kamisetek arrakasta izaten dute mutilen artean.

4 Jertseak. Batez ere kiroleko jertseak edo izerditakoak, harizkoak gutxiago. Azken horiek ere, marrazki eta hizki handidunak. Txalekoak ere tokia irabazten jarraitzen du.

Publierreportajea

Look naturala

Gehienetan minbiziarekin lotzen dira ileordeak, baina gaur egungo gizartean, gaixotasun horretatik harago, ileordeak eta protesi partzialak erabiltzeko beharra dutenak gero eta gehiago dira.

Alopezia arazo handiak daude eta sistema partzialen laguntzarekin bizitza kalitatea hobetzea erabakitzen dute askok, emaitzak gero naturalagoak eta hobekak baitira.

Alopeziak gainera, **ez du adinik**. Ordiziako ER Matxainera gero eta gazte gehiago etortzen dira alopeziak sortzen dituen arazoei irtenbidea bilatzeko helburuarekin. Dena den, alopeziaren arazoa dutenentzat bakarrik ez; **ile fina** dutenentzat ere aukera paregabea da protesiena, dentsitatea edo bolumena gehitzeko oso erabilgarriak direlako.



Alopezia arazo handiak daude eta sistema partzialen laguntzarekin bizitza kalitatea hobetzea erabakitzen dute askok.

Ilea galtzeak **ondorio psikologikoak** eragin ditzake: autoestimu eta konfiantza falta, segurtasun eza, depresioa... Arazo horiei aurre egiteko eta bizi kalitatea hobetzeko, **emaitza harrigarriak** lortzen dira etengabe hobetzen eta garatzen ari diren ileorde edo protesi sistemekin, ondorengo argazkietan ikus daitekeen bezala. Nabaritu ere ez da egiten.

Etorri ER Matxainera, eta zure neurriko irtenbidea aurkitzen lagundu-ko dizugu.



ESTIBALITZ
RUANO MATXAIN
ileapaindegia
ileordeak



[f](https://www.facebook.com/estibalitzruanomatxain) [ig](https://www.instagram.com/estibalitzruanomatxain) www.estibalitzruanomatxain.com

ERM Txandak hartzeko App-a

Araba, 1 behea

ORDIZIA

Tel.: 943 88 10 35




Kolorez jantziak

Nork esan du negua tristea dela? Aurten behintzat ez! Kolore biziz dotoz udazkena eta negua. Grisarekin eta beltzarekin batera, jantzi eta osagarri gorriak, horiak, berdeak, urdinak, arrosak... dira aurtengo joerak, goierritarrek dagoeneko bere egin dituztenak.

Etxeetako dekoraziorako urteko kolorea proposatzen duen bezala, Pantone Color Institute-k (kolorearen aholkulariak eta joeren aurreikuspen egileak) aurkeztu du 2023-2024ko udazken-neguko kolore multzoa. Koloretsu dator aurtengo udazken-negua. «Errealitate berriaren adierazle» dela zehaztu du, «gure bizitzetara sormena eta alaitasuna» eraman nahi dituelako. Metal koloreak oso modan daude.

Kolore alaiko gama da, baina kolore neutroekin konbinatzeko errazak. Goierriko dendetan eta kaleetan tokia irabazten ari dira pixkanaka eta Goierriko kaleak ere kolorez jantzi dira.

Laskurain





Nola konbinatu?

Kolore paleta horretako **koloreak konbinatzeko ideiak:**

- **Gorria**, beltzarekin eta zuriarekin.
- **Grisa**, beltzarekin, zuriarekin, arrosa biziarekin eta lilarekin.
- **Magenta**, beixarekin eta arrosa pastelarekin.
- **Horia**, bakeroekin, marroiarekin, moratuarekin, grisarekin eta berdearekin.
- **Arrosa**, beltzarekin.
- **Beltza**, aurretik aipatutakoez gain, beltzarekin, grisarekin, beixarekin, txuriarekin eta marroiarekin.



Amane

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia edergintza
kirol masajea



*Zure edertasuna eta
orrazkera
gure esku utzi*



Tel.: 943 16 22 56 Iturtxo bidea, 5 ORDIZIA

Oinetakoen garrantzia

Oinetako egokiek look bat erabat eraldatu eta hobetu dezakete. Osagarri garrantzitsuenetako bat dela esan daiteke. Horregatik, oinetakoei behar adinako garrantzia eman behar zaie. Erosotasuna eta dotoretasuna uztartzea da gakoa.



Argazkiak: zapatosobi.com

Babesteko helburua

Oinetakoen helburua oina babestea da; eguraldi txarretik (hotza, hezetasuna, euria, lokatza...), lurraren irregulartasunetatik, kolpeetatik, igurtzietatik, zaurietatik eta abarretatik babestea. Udazken-negurako beraz, botak ezinbestekoak dira, prakekin, gonarekin eta soinekoekin konbinatzeko errazak baitira.

Hori bai, aukeratutako jantzien arabera, bota luzeagoak ala laburragoak, takoidunak, plataformadunak edo baxuak izango dira aukerarik. Moteroak edo cowboy deiturikoak oso modan daude. Goierriko oinetako dendetan bota luzeak baino gehiago ikus daitezke bota laburragoak; kolore desberdinetakoak.



Kirol oinetako koloretsuak

Udaberri zein uda, udazken zein negu, kirol oinetakoak moda-modan izaten jarraitzen dute. Zapatila zuriek eta kolore argikoek modan jarraituko dute, baina beste denboraldi batzuetan baino gutxiago. Kolore eta material desberdinez konbinatutako zapatilak hartu dituzte Goierriko dendak, alaiak eta deigarriak. Baita beltzak ere. Modelo askok, zola eta plataforma lodikoak merkaturatu dituzte.



Mokasinak

Elegantzia eta erosotasuna uztartzen dituzte mokasinek eta beste behin ere, modan jarraitzen dute. Takoiarekin edo gabe. Beltzak edo koloretakoak. Apaingarri desberdinekin apaindutakoak. Galtzerdi zuriekin konbinatzea da aldizkarietako tendentzia. Mokasinen ondoan daude bailarinak deiturikoak ere, apaingarri desberdinekin apaindutakoak. Bi koloretakoak eta belarrarekin (hebilla) lotutakoak oso modan daude.



Korrikako zapatilak kalerako

Gizonezkoetan, egunerokorako ere, korrika egiteko kirol zapatilen itxurara egokitu dira oinetako marka nagusiak. Bai mendiko korrikalarien erakoak, zein errepidekoak. Hori bai, modako koloreetara moldatutakoak, eta modako kolorez eta materialez konbinatuta. Ukitu jantziagoarekin. Skate erako betiko zapatilek beti jarraitzen dute modan; aurten, zola marroiarekin konbinatutakoak. Zapatila zurriak konbina errazak dira.

Zapatarik nahi ez ez dutenek, zapata informalagoak eta jantziagoak, mokasinak eta botak (luzeagoak zein motzagoak) izango dituzte aukeran.

Zapatila altuak

Haurren moda ere helduen parean joaten da, nahiz eta txikiaren beharretara egokitutakoak izan. Beraz, emakumezkoetan eta gizonezkoetan orain arte esandakoak ere baliagarriak dira neska-mutiletan ere. Hori bai, zapatila altuak edo bota estilokoak moda-modan daudela ikus daiteke. Nesken kasuan, detailetxo bereziekin dotoretuak; mutilenak, kirolekoak ukitu handiagoarekin.

Botetan, barruan ilea dutenak ere badituzte haurrek aukeran neguan goxo-goxo eta bero-bero ibiltzeko.



Xarmanki
edergintza

📞 943 72 25 13



Labeaga, 2 URRETXU



Osagarriekin azken ukitua



Massimo Dutty

Gerrikoak jantzien gainetik

Oso modako dago gerrikoa. Zabala zein estua. Edozein jantziren gainetik gerrikoa jartzea da aurtengo modatako bat. Baita jertsearen eta txamarraren gainean ere.



Mumit

Belarritako handiak

Bitxiei dagokionean, belarritako handiak daude moda-modan, batez aro handiak. Lepokoak eta eskumuturrekoak ere bai. Lookari ukitu berezia emango diote bitxiek; kolorea emateko aukera polita da.



Esquire.com

Txanoak eta biserak

Eguzkitatik babesteko bakarrik ez, biserak ere baliagarriak negurako, hotzetik babesteko. Harizko txanoez gain, biserak ere gero erabilgarriagoak dira neguan, baina emakumezkoetan zein gizonezkoetan.



Dim

Barrutik ere, koloretsu

Denboraldi honetako modako kolore alaiak barruraino sartuko dira. Betiko kolore neutroekin batera, barru arropa koloretsuak izango dira aukeran, osagarri garrantzitsu bihurtzeraino.



Lx moda

Leporako babesgarriak

Lepoa hotzetik babesteko osagarriak protagonismo handia hartzen dute udazken-neguan. Batez ere, bufandak daude modan. Lisoak, brilludunak zein koloretako estanpatuak daude aukeran.



Ztat.net

Galtzerdiak gero eta ageriagoa

Gero eta osagarri garrantzitsuagoak bihurtzen ari dira galtzerdiak, gero eta ageriago eramateko joera handitzen ari baita. Beraz, galtzerdiei ere arreta eskaini beharko zaie.



Amane

Emakume
arropa
denda



Xarmanki

Aurpegiko udazkeneko tratamenduak

Udan eguzkiak larruazalean eragindako kalteak konpontzeko garaia izaten da udazkena.

Aurpegiko tratamenduei arreta berezia jartzeko unea da. Makillajerako joerak ere finkatuta daude dagoeneko.

Udazkena aurpegiko tratamenduei ekiteko garai egokia izaten da. Udaren eta eguzkiaren gehiegikerien ondoren, aurpegiko azala zaintzeko garaia izaten da udazkena. Aurpegiko larruazala birsortu edo erregeneratu egin behar izaten da eta horretarako, tratamendu desberdinak erabil daitezke.

1 Tratamendu hidratatzaileak eta konpontzaileak egitea da aukeretako bat, eta gure azala prestatu tenperatura aldaketekin jasango dituen kalteei aurre egiteko.

2 Despigmentatzaile tratamenduak ere egin daitezke, orbanen kopurua, tamaina eta intentsitatea nabarmen murrizteko baliagarria baita. Larruazalaren tonua bateratzea ere lortu behar da.

3 Erretinol bidezko tratamenduak ere egin daitezke udazkenean, eta gure larruazala birsortzeaz gain, egitura hobetzea eta adinaren zeinuak arintzea lortuko da, argitasuna eta hidratazioa berreskuratuz.




Xarmanki

Makillajea, koloreak

Makillajeari dagokionean, ondorengoak dira aurtengo udazken-neguko **kolore joera**:

- **Makillaje-oinarri** arinak eta estalduradunak, arintasuna eta distira emanaz.
- **Begien kasuan**, *eyeliner* leun eta xume bat izango da joera nagusia, begiaren lerroa nabarmentzen duena eta apur bat lausotua. Itzalei dagokienez, tonu arrosak, beixak, grisak... begiradari argia ematen dioten tonuak nabarmentzen dira.
- **Masailetako** gorritasuna nabarmentzen saiatuko gara, itxura gorritu eta natural bat lortzeko.
- **Ezpainetan** bolumen txiki bat ematen duten tonuak erabiliko dira. Mateak edo satinatuak izan daitezke, unearen arabera. *Gloss* ukitu arin bat ere erabil daiteke, ezpainek itxura mami-tsua izan dezaten. Koloreei dagokionean, tonu marroiak, granteak eta gorriak modan izaten jarraituko du. Hori guztia aldez aurretik perfilatuta.





Xarmanki



Nahizu

ESTETIKAKO ETA ILEAPAINKETAKO PRODUKTUAK

 Azhaly Estetica

 655 974 257

Nafarroa Etorbidea, 5 - BEASAIN

PORFIRIO FERNANDEZ

porfiriofernandez.com






Tel.: 943 88 11 33

J.M.Barandiaran plaza, 7

ORDIZIA

Ile luzetik laburragora

Udako kalteak konpontzeko garaia izaten da udazken hasiera ile apaindegietan. Eguzkiak eta kloroak kaltetutako ilea konpontzeko garaia. Eta aldaketa garaia ere izaten da. Ile luzeak dituztenen kasuan, «mozketa onak» egitekoa; kopetako ileak edo flekilloa aldatzekoa, kolorea berritzekoa.

Moda aldizkariak izaten dituzte askotan erreferentzia bezero-

ek, eta bakoitzaren ausardiaren arabera, egiten da aukera. Aurtengo joeretako bat melena motzak dira, kapeatuak, *mullet* erak, kopetako ileak irekiagoak... Koloreetan, berriz, kolore naturalagoak, punta argiagoak.

Hidratazio tratamenduak egiteko garaia ere bada udazkena. Produktu naturalen eskaintza gero eta handiagoa da.

Lehen



Orain



36Q.ainhoaquiros



UR. Leire Santillán



UR (Urretxu) : 943724464
Luzuriaga (Donostia) : 695751634

Zure oinak janzten ditugu!

www.zapatosobi.com



Nagusia, 34

Telf.:943 88 19 44

ORDIZIA

Nagusia, 32

Telf.:943 88 41 04

BEASAIN

Sekundino Esnaola, 8

Telf.:943 72 19 58

ZUMARRAGA

Oskarbi
o i n e t a k o a k